

Irurtzunen, bi mila eta bederatziko urriaren hamahiruan, arratsaldeko zazpiak direnean, Ezohiko Bilkura egitearren Irurtzango Udaleko Udalbatza, legeak agintzen duen moduan deituta, Batzar-gelan elkartu da Juan Jose Iriarte Vitoria alkate-lehendakaria buru dela. Bertan izan dira ondoren aipatzen diren zinegotziak:

Francisco Goicoechea Arbizu
Jose Javier Recalde Maestre
Saray Ongay Garcia
Jose Luis Viñas Estudillo
Luis Enrique de la Calle Moreno
Maria Nieves Uterga Juango
Eduardo Murugarren Frances
Francisca Arruabarrena Quintana

Eta idazkaria naizen hau, Santos Iragui Hualde.

Ezin etorria adierazi du Xabier Unanua Goicoecheak. Ez da etorri, eta ez du ezin etorria adierazi du Jose Peinado Cuestak.

AURREKO BILKURAREN AKTA ONETSI

Bilkurari hasiera emanda, udalburuak deialdiarekin batera banatu den 2009ko irailaren 8an egindako Bilkuraren Aktari zinegotziren batek oharren bat egin nahi ote dion galdetu du.

De la Calle jaunak berretsi du UPNko zinegotziak ez zirela osoko bilkurara etorri aipatu bilerako eguneko aztergaietan jasotako mozioen eztabaidan parte hartu nahi ez zutelako. Halaber, jakinarazi du aktari onespena emateko bozketan abstentziora joko dutela.

Jarraian, irakurketa eginda, onartu egin da Iriarte, Goicoechea, Recalde, Viñas eta Unanua jaunen eta Ongay eta Arruabarrena andreen aldeko botoekin. De la Calle jaunak eta Uterga andreak abstentziora jo dute.

ALKATETZAK HARTUTAKO ERABAKIEN IRAKURKETA

2009ko irailaren 8az geroztik Alkatetzak eman dituen Ebazpenak irakurri dira eta, honenbestez, zinegotziak jakinaren gainean daude.

2009ko PLANTILLA ORGANIKOA

Ogasun, Industria, Langileak eta Barne Eraentza Batzordeak 2009ko urriaren 8an egindako Bilkuran onartutako proposamenarekin, honako hau erabaki da aho batez:

1.- 2009ko ekitaldirako Plantilla Organikoaren proiektua hasiera batean onartzea. Aipatu plantillaren xehetasuna honako hau da:

- Funtzionarioak:

Idazkari bat. A maila. Hizkuntza-eskakizuna: 3. Osagarriak: % 19,72 (Lanpostua), % 35 (bateraezintasuna).

Kultur koordinatzaile bat. B maila. Hizkuntza-eskakizuna: 3. Osagarriak: % 38,57 (L), % 10 (Lanaldi luzapena).

2 administrari-ofizial. C maila. Hizkuntza-eskakizuna: 3. Osagarriak: % 12 (Maila), % 21,36 (L).

Etkezain bat. D maila. Hizkuntza-eskakizuna: 2. Osagarriak: % 12 (M), % 20,99 (L).

Zerbitzu anitzeko ofizial bat. D maila. Hizkuntza-eskakizuna: 1. Osagarriak: % 12 (M), % 20,99 (L).

- Langile finkoak:

Zerbitzu anitzeko ofizial-arduradun bat. Hizkuntza-eskakizuna: 1.

Udal Musika Eskolako 9 irakasle. Lanaldi partziala. Hizkuntza-eskakizuna: 3.

Udal Ludotekako bi monitore. Lanaldi partziala. Hizkuntza-eskakizuna: 3.

Aisiarako monitore bat. Lanaldi partziala. Hizkuntza-eskakizuna: 3.

- Administrazio kontratudunak:

Kontu-hartzaile - Diruzain bat. B maila. Hizkuntza-eskakizuna: 3. Osagarriak: % 38,57 (L).

- Funtzionarioen izen-zerrenda:

Flamarique Elcano, Consolación. Ofizial administraria. Maila: C. Gradua: 3. Egoera: Eszedentzia.

Iragui Hualde, Santos. Idazkaria. Maila: A. Gradua: 5. Egoera: Aktibo.

Martirena Iriarte, María Jesús. Ofizial administraria. Maila: C. Gradua: 4. Egoera: Aktibo.

Miqueo Ariztimuño, Francisco José. Kultur koordinatzailea. Maila: B. Gradua: 3. Egoera: Aktibo.

Moreno Iribas, Francisco Javier. Etkezaina. Maila: D. Gradua: 4. Egoera: Aktibo.

Prieto Pariente, Alfredo. Zerbitzu anitzeko ofiziala. D maila. Gradua: 2.
Egoera: Aktibo.

- Administrazio-kontratudunen izen-zerrenda:

Otazu Ferrer, José Antonio. Kontu-hartzaile – Diruzaina. B maila.
Gradua: 2. Egoera: Aktibo.

- Lan-kontratu finkoa duten langileen izen-zerrenda:

Echarte Sagardia, Pedro. Zerbitzu anitzeko ofizial-arduraduna. Egoera:
Aktibo.

Beloqui Izco, Juan Carlos. Udal Musika Eskolako irakaslea. Egoera:
Aktibo.

Egües Ascunce, Asier. Udal Musika Eskolako irakaslea. Egoera: Aktibo.

Iparraguirre Iribarren, Ainhoa. Udal Musika Eskolako irakaslea. Egoera:
Eszedentzia.

Iraizoz Remiro, Urtzi. Udal Musika Eskolako irakaslea. Egoera: Aktibo.

Izco Jiménez, Ana. Udal Musika Eskolako irakaslea. Egoera: Aktibo.

Los Arcos Cantero, Susana. Udal Musika Eskolako irakaslea. Egoera:
Aktibo.

Mayo Hermoso de Mendoza, Zuriñe. Udal Musika Eskolako irakaslea.
Egoera: Aktibo.

Moreno Ibarrola, Marta. Udal Musika Eskolako irakaslea. Egoera:
Eszedentzia.

Trigo Necega, Pilar. Udal Musika Eskolako irakaslea. Egoera: Aktibo.

Bailón Ansorena, Ceferina. Udal Ludotekako monitorea. Egoera: Aktibo.

Villegas Rivas, Esther. Udal Ludotekako monitorea. Egoera: Aktibo.

Pellicer Aibar, Ana. Aisiako monitorea. Egoera: Aktibo.

2.- 2009rako honako enplegu-eskaintza onartzea.

- Funtzionarioak:

Zerbitzu anitzeko ofizial bat. D maila. Hizkuntza-eskakizuna: 1.
Osagarriak: % 12 (M), % 20,99 (L).

ZERBITZU ANITZEKO LANGILE LANPOSTURAKO BEHIN BEHINEKO DEIALDIA

Ogasun, Industria, Langileak eta Barne Eraentza Batzordeak 2009ko urriaren 8an egindako Bilkuran onartutako proposamenarekin, zerbitzu anitzeko lanpostua oposaketa bitartez betetzeko deialdia egitea erabaki da aho batez.

XEHETASUNeko AZTERKETA HASIERA BATEAN ONARTZEA

Hirigintza, Etxebizitza, Partzuergo eta Ingurumen Batzordeak 2009ko irailaren 24an egindako bilkuran onartutako proposamenarekin, 2. poligonoko 347 zenbakidun katastro-lursailaren Xehetasuneko Azterketa, Xabier Unanua Goicoecheak sustatua, hasiera batean onartzea erabaki da aho batez.

Puntua hasita Osoko Bilkuren aretoa utzi du Goicoechea jaunak, eta berriro ere sartu da puntua amaituta.

GARAPENERAKO LANKIDETZA PROIEKTUETARAKO DIRU LAGUNTZAK

Gizarte Ongizate Batzordeak 2009ko abuztuaren 27an egindako bilkuran onartutako proposamenarekin, jarraian aipatzen diren GKEei ondorengo diru-laguntzak ematea erabaki da aho batez, deialdian aurkeztutako garapenerako lankidetzaproiektuak lan ditzaten:

- 2.971,70 euro El Salvador Elkartasuna-Itxipuru Taldeari, honako proiektu honetarako: "El Salvadorreko Cabañas Departamenduko Jutiapa, Tejutequepe eta Cinquera udalerrien Mankomunitatearen eraketa indartzea eta produkzioaren garapena".
- 2.971,70 euro Itxipuru Taldeari honako proiektu honetarako: "Lagunak betirako – El Salvadorreko San Salvador udalerrian inhalatzaileekiko eta bestelako gaiekiko mendekotasuna duten kaleko haurrei eta nerabeei zuzendutako berreziketa- eta harrera-gunea".
- 2.971,70 euro SETEM Navarrari, honako proiektu honetarako: "Eztia prozesatzeko eta fintzeko gunea eraikitzea eta hornitzea - Kamerun".
- 1.718,00 euro Medicus Mundiri, honako proiektu honetarako: "Garapen integralerako programa Nikaraguako Muy Muy udalerriko landa-eremuan".
- 1.718,00 euro Bakerako Lankidetz Batzarrari, honako proiektu honetarako: "Guatemalako Huehuetenango Departamenduko San Juan Atitan udalerriko Santa Isabel erkidegoko elikadura-egoera, osasun- eta higiene egoera, ingurumen egoera eta egoera sozio-komunitarioa hobetzea, genero-berdintasunari arreta berezia eskainiz".

- 1.718,00 euro Mugarik Gabe Nafarroari, honako proiektu honetarako: “Mexikoko Chiapasen mediku-arreta, ahalduntzea eta genero-ekitatea”.

- 1.718,00 euro Lodosako La Esperanza Elkarteari, honako proiektu honetarako: “Hogar Santa Monica harrera-etxea – Brasilgo Fortaleza-Ce herrian sexu abusua eta sexu-esplotazioa pairatzen duten haur eta nerabeak babesteko sistema hobetzea”.

KIROL ARLORAKO DIRU LAGUNTZAK

Kirol Batzordeak 2009ko urriaren 7an egindako Bilkuran onartutako proposamenarekin, honako hau erabaki da aho batez:

1.- Kirol-erakundeek beren jardueren oroitza-txostenak aurkeztuta, erakunde horien funtzionamendurako aurreikusitako diru-laguntzen gainerako % 50, 2009ko Aurrekontuko 4523 48203 kontu-sailaren kargura:

- 2.900,00 euro Irurtzungo Pilota Taldeari.
- 1.450,00 euro Bi Aizpe Pilota Elkarteari.
- 3.800,00 euro Xota areto-futbol eskolari.
- 500,00 euro saskibaloia eskolari.
- 250,00 euro Pistones motoklubari.

2.- 2009ko aurrekontuko 4523 2270901 kontusailaren kargura:

- 900,00 euro Monte Altorri, nesken pilota goxoa eta frontenis txapelketetarako.
- 300,00 euro Joseba Arlegiri, Saien Balkoian eskalada-bidea irekitzeagatik.

EUSKARA ARLOAN DIRU LAGUNTZAK EMATEKO ALKATETZAREN PROPOSAMENA

Alkatetzaren proposamen hau irakurri da:

“Euskara ikasteagatik diru-laguntzak emateko alkatetzaren proposamena. Euskara Batzordeak, 2009ko urriaren 5ean egindako bilkuran, gutxieneko partaide-kopurua ez zegoelako afera honi buruzko irizpena ematerik izan ez zuenez, egokia da Alkatetzaren proposamen gisa aurkeztea.

Hartu asmo den erabakia euskara ikasteko ondoren aipatzen diren diru-laguntzak ematea da, 2009ko Aurrekontuko 4510 48201 kontu-sailaren kargura:

- 248,40 euro Maria rosario Garcia Vidondori.
- 144,80 euro Jose Javier Recalde Maestreri.”

Proposamena eguneko aztergaietara sartzearen inguruko bozketa eginda, aho batez onartu da.

Jarraian honako hau erabaki da:

- 1.- Alkatetzaren proposamenean jasotako diru-laguntzak onartzea.
- 2.- Dagokion Batzordeari hartutako erabakiaren berri ematea, Antolakuntza eta Jarduera Araudiaren -AJA- 162.2 artikuluan xedatutakoa betez.

KONTSEILUAREKIN LANKIDETZA GARATZEKO ALKATETZAREN PROPOSAMENA

Jarraian alkatetzaren proposamen hau irakurri da:

Alkatetzaren proposamena kontseiluarekin lankidetzan jarduteko, Udalaren hizkuntza-politika ebaluatze aldera.

Euskara Batzordeak, 2009ko urriaren 5ean egindako bilkuran, gutxieneko partaide-kopurua ez zegoelako afera honi buruzko irizpena ematerik izan ez zuenez, egokia da Alkatetzaren proposamen gisa aurkeztea.

Hartu asmo den akordioa da Kontseiluarekin lankidetzan jardutea udalaren hizkuntza-politika ebaluatze aldera. Horrek honako konpromisoak hartzea eskatzen du:

- 1.- Irurtzungo Udalak Kontseiluaren dinamikarekin bat egin nahi du hizkuntza-politika egokiak lortze aldera.
- 2.- Ildo horretan, Irurtzungo Udalak bere hizkuntza-politikaren ebaluazioa babesten du, eta horretarako beharrezkoa den laguntza teknikoa emateko borondatea adierazten du.
- 3.- Halaber, ebaluazioaren emaitzak erreferente hartuta, Irurtzungo Udalak administrazio honetan hizkuntza-politikan egon daitezkeen gabeziei konponbidea emateko konpromisoa hartzen du.

Bere aldetik, Kontseiluak herrian euskararen arloan diharduten eragileekin lankidetzan ebaluazioa egiteko (egia esan ebaluazio hori 2008an egin zen), Udalaren hizkuntza-politiketan izandako aldaketan

jarraipena egiteko, eta izandako bilakaeraren bigarren ebaluazioa egiteko konpromisoa hartzen du.

Proposamena eguneko aztergaietara sartzearen inguruko bozketa eginda, aho batez onartu da.

Jarraian honako hau erabaki da:

1.- Alkatetzaren proposamenean jasotakoaren arabera, Kontseiluarekin lankidetzan jardutea onartzea, Udalaren hizkuntza-politika ebaluatze aldera.

2.- Dagokion Batzordeari hartutako erabakiaren berri ematea, Antolakuntza eta Jarduera Araudiaren -AJA- 162.2 artikuluan xedatutakoa betez.

HERRIKO KALEEN NOMENKLATURAREN INGURUKO ALKATETZAREN PROPOSAMENA

Halaber, alkatetzaren proposamen hau irakurri da:

“Herriko kaleen nomenklatura finkatzeko alkatetzaren proposamena. Euskara Batzordeak, 2009ko urriaren 5ean egindako bilkuran, gutxieneko partaide-kopurua ez zegoelako afera honi buruzko irizpena ematerik izan ez zuenez, egokia da Alkatetzaren proposamen gisa aurkeztea.

Hartu asmo den proposamena da herriko kaleen nomenklatura finkatzea, hizkuntza-irizpideak kontuan hartuta, eta Nafarroako Gobernuko itzulpen-zerbitzuak emandako jarraibideen arabera. Kaleen izenak honakoak izanen dira:

ALDAPA KALEA

AMAIA KALEA

ANDIA KALEA

ARALAR KALEA

ARDANTZETA KALEA

ARDUBIL (behinola ARDOGIBEL) KALEA

ARTADIA KALEA

BI HAIZPE KALEA

LIZARRA KALEA

FORU PLAZA

KALE BERRIA

OSKIA KALEA

SAN MARTIN KALEA

SAN MIGEL KALEA
TRINITATE KALEA
URBASA KALEA
HERRIA KALEA
ELIZPEA KALEA
GERNIKA PLAZA
AKABORRO INDUSTRIALDEA
PLAZAOLA KALEA
HILERRIKO BIDEA
INTXAURRETA KALEA
LARRAUN KALEA
UGALDETA KALEA
ITSASIA KALEA
ITURTXOKO KALEA
BEHEITIKO ERREKA KALEA.”

Proposamena eguneko aztergaietara sartzearen inguruko bozketa eginda, aho batez onartu da.

Jarraian honako hau erabaki da:

- 1.- Alkatetzaren proposamenean jasotako herriko kaleen nomenklatura onartzea.
- 2.- Dagokion Batzordeari hartutako erabakiaren berri ematea, Antolakuntza eta Jarduera Araudiaren -AJA- 162.2 artikuluan xedatutakoa betez.

BATZORDEEN INFORMAZIOA

Hirigintza, Etxebizitza, Partzuergoa eta Ingurumena.

Iriarte jaunak berriki ur-ekarrian izandako matxuraren berri eman du, eta esan du ura Larraun ibaitik hartu zela ponpa bidez. Esan duenaren arabera, ura araztegitik pasa zen uneoro; beraz, osasunari dagokionez, ez zen inolako arriskurik egon.

Bestalde, Ingurumen eta Landa eta Itsas Inguruneko Ministerioan zuzendari nagusiarekin eta Landa Eremuko Garapen Jasangarriko zuzendari teknikoarekin izandako bileraren berri eman du. Bileran honako hauek aztertu ziren Artadiako tunelaren inguruan:

- Ministerioak proposatu du ura eramateko bidearen, eta tunelaren ibilbide alternatiboa gauzatzearen inguruko bideragarritasunari buruzko azterketa egitea.

- Ibilbide alternatiboa teknikoki gauzagarria bada, eta aurrekontua oraingoa baino txikiagoa bada, horren aldeko apustua egingen da. Hala ez bada, tunela finkatzeko lanak 2010ean hasiko dira.

GALDE-ESKEAK

De la Calle jaunak berriro ere galdetu du ea Iberdrolari helarazi zaion azpiestazioan duen gehiegizko argiztapenak eragiten duen egonezina. Iriarte jaunak azaldu du zailtasun handiak daudela Iberdrolarekin harremanetan paratzeko. Esan du hainbat gai daudela aztertzeko enpresa horrekin, eta erabakitzeko bidean daudela.

Murugarren jaunak Amaia kaleko sarbidean dagoen pibota metalikoaz galdetu du.

Iriarte jaunak esan du berriki jarri dela leku horretan minusbaliatuendako dagoen pasabidea oztopatzea saiheste aldera.

Aztergai gehiagorik ez dagoela, eta arratsaldeko zazpiak eta berrogei minutu direnean, udalburuak bilkura amaitutzat jo du. Idazkari naizen honek bilkuraren Akta jaso, eta horren Egiaztapena egiten dut.